

**OHOREZKO EUSKALTZAINAK**  
**2010-I-29 / 2010-II-26**

Euskaltzaindiak aldiro-aldiro erakundeko kide berriak izendatzen ditu, euskararen alde lanean diharduten pertsoneri erakunde barruan lekua eginez, nahiz euskarari egindako mesede bikainengatik nabarmendu direnei ohore eta aitortza eginez.

Zuek ondo dakizueenez, gaur egun hiru motako kidez osotuta dugu Euskaltzaindia. Batetik, erabakiak hartzeko eskumena duten euskaltzain osoak (ohiko 24ak) gehi emerituak (75 urtetik gorako beste 5ak). Emerituek, bileretara joanez gero, euskaltzain osoen eskubide berberak izaten jarraitzen dute, baikoitzari ordezeko bat izendatu zaiolarik. Hala ere, bertaratzerik ez dutenean ezin diote erabakiak hartzeko ahalik eman beste inori. Horrela, gaur egun, erabakiak hartzeko euskaltzain osoen/emerituen kopurua 29koa dugu.

Horiez gainera, badira beste hainbat euskaltzain ere. Hots, ohorezko euskaltzainak eta euskaltzain urgazleak. Ohorezko euskaltzainak euskarari egindako mesede bikainengatik izendatuak dira. Euskaltzain urgazleak, ostera, euskararen alorrean lanean nabarmentzen ari direnak ditugu. Oso ugaria da euskaltzain urgazleen kopurua, hain zuzen ere, oso ugaria delako euskararen alor desberdinetan lanean ari diren pertsonen kopurua. Hauek izan ohi dira, Euskaltzain osoekin batera batzordeetan euskarari buruzko ikerketak bideratzen dituztenak.



Jakina denez, Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, bere arautegiaren arabera. Ohorezko euskaltzainen azken izendapena 2004an egin zen. Gaur egun, 33 ohorezko euskaltzain dira. Hori horrela, Euskaltzaindiko zuzendaritzak abenduko ohiko bileran ohorezko euskaltzainak izendatzeko arazko hilabeteko epea ireki zuen. Hautagaiaren aurkezpena zuzendaritzak edota euskaltzain oso bik egin behar dute, eta gero bilera orokorrean onartua izan.

Horrela, bada, Euskaltzaindiak, legezko tramiteak burutu ondoren, zuzendaritzak aurkeztuta, urtarrilaren 29ko bileran 11 ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen. Izendapenak ageriko egin ondoren, joan zen otsailaren 26an, ostiralean, eguerdiko 13:00etan, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza nagusian, ohorezko euskaltzainei diplomak banatzeko ageriko ekitaldia

egin zen. Hona hemen, ekitaldi horretan izandako jardunaren gidoia.

Euskaltzaindiko idazkaria dugun Xabier Kintana jauna honela hasi zen, estatutuek agintzen dutena betetzeko jarduneari:

**1)** Eguerdi on, jaun-andreoak. Euskaltzaindiaren Idazkaria naitenez, Akademiaren batzar-agiri baten atala irakurriko dut, non adierazten den Euskaltzaindiak aho batez erabaki duela zenbait pertsona ohorezko euskaltzain izendatzea. Honela dio Euskaltzaindiak joan den urtarrilaren 29an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, egin zuen osoko batzarreko agiriak, 7. atalean:

**“7. Ohorezko euskaltzain berriak izendatzea proposatu du Andres Urrutia Euskaltzainburuak. Jose Luis Lizundiak gogorarazi du zein diren Euskaltzaindiak erabili behar dituen irizpideak ohorezko euskaltzainak hautatzeko. Mementoko, 6 ohorezko euskaltzain badira Iparraldetik, 5 Bizkaitik, 4 Gipuzkoatik, 2 Nafarroatik, 5 atzeritik.**

Ondoko zerrendan daudenak Ohorezko Euskaltzain izendatzea proposatu da eta onartu da aho batez:

Bizkaikoak: *Gorka Aulestia* eta *Luis Baraiazarra*.

Gipuzkoakoak: *Jose Azurmendi*, *Ana Maria Etxaide*, *Jose Mari Iriondo* eta *Xabier Lete*.

Nafarroakoak: *Pakita Arregi* eta *Jose Angel Irigarai*.

Iparraldekoak: *Erramun Baxok* eta *Marzel Etchebandy*.

Atzerikoa: *Joshua A. Fishman* bizkuntza-soziologoa. “

**2)** Euskaltzaindiaren arautegiko *Hogeita bemeretzigarren* artikulua honela dio:



*“Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskerari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamendua behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egina, eta Batzarraren onartzea.”*

3) Euskaltzaindiaren *Barne* Erregeletako 10. artikulua hau dio, euskaltzain ohorezkoen eskubideez ari denean:

[...]

*10.4. Euskaltzain ohorezko dela adierazteko abalmena izatea eta hori adierazten duen ikurra jasotzea.*

4) Gaurko ekitaldiaren xedea, hain zuzen, horixe da, ohorezko euskaltzain izendatu berriei diploma ematea, non adierazten den ohorezko euskaltzainak direla. Banatuko zaien diploma honela dio:

*“Euskaltzaindiak (URLIA jauna edo andrea) euskararen aldeko baren merezimendu bikainak aitortuz, euskaltzain ohorezko izendatu du.*

*Bilbon 2010eko otsailaren 26an.*

*Idazkaria eta Euskaltzainburua”*

5) Ekitaldia honela izango da: ohorezko euskaltzainak ordena alfabetikoan deituak izango dira, ondoren Zuzendaritzako ki-deen eskutik diploma jasoko dute, eta 2-3 minutuz haien hitzak entzuteko aukera izango dugu. Aukera honetaz baliatuko gara Euskaltzaindiaren ikurra lehendik jaso ez dutenei hori ere emateko.

6) *Beraz, diplomak banatzeari ekingo diogu.* Diploma eman aurretik ohorezko euskaltzain bakoitzaren biografia eta merezimenduak aipatuko dira labur-labur. Bestalde, ohorezko euskaltzain berrien argitalpen zenbait aldameneko erakustegian dau-de, Azkue Biblioteka Zerbitzuak antolatutik.

**6.1) Pakita Arregi.** Areson (Nafarroa) jaioa. Soziologia eta Politika Zientzietan Doktorea. Euskal Herriko Unibertsitatean katedraduna izan zen erretiroa hartu arte. 1964ean sortu zen Joannes Etcheberry Andereño Eskolan, ikastegiaren zuzendari izan zen eta bertako ikasleentzako euskarako lehenengo gaitasun-proben antolaketa berak egin zuen, Euskaltzaindiak babesturik. EGA azterketako epaimahaikidea izana da, Euskaltzaindiaren izenean eta euskaltzain urgazlea ere bai. Diploma Euskaltzainburuak emango dio.



**6.2) Gorka Aulestia.** Ondarroan (Bizkaia) jaioa. Humanitateak, Filosofia eta Teologia ikasketak burutu zituen. Litera-



teko Filosofia Modernoko katedraduna. *Jakin* aldizkariaren bultzatzaileetarikoa. Euskal saiogilerik zorrotz eta berritzaileenetarikoa da. Euskaltzain urgazlea. Diploma eta ikurra Euskaltzainburuak emango dizkio.

**6.4) Luis Baraiazarra.** Meñakan (Bizkaia) jaioa. Euskal Filologian li-



tura frantsesean eta espainiar Literaturan lizentziatua. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeko kide eta euskaltzain urgazlea dugu. Diploma Idazkariak emango dio.

**6.3) Joxe Azurmen-  
di.** Zegaman (Gipuzkoa) jaioa. Idazle eta filosofoa. EHUKo Filosofia Fakultate-



zentziatua. *Karmel* aldizkariaren idazle eta zuzentzaile. Lexikologia arloan egin du lanik handiena. “Bostak Bat” lantaldeko kidea. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldeko kide eta Gramatika batzordeko kide izana. Euskaltzain urgazlea. Diploma eta ikurra Idazkariak emango dizkio.



**6.5) Erramun Baxok.** Suhuskunen (Nafarroa Beherea) jaioa. Filoso-  
fian doktorea. 1968an Quebec-era joan  
zen, han hogeitun urte eman zituelarik.  
Ipar Euskal Herriko mugimendu eus-  
kaltzalean parte-hartzailea. Euskaltzain-  
diaren Sustapen batzordeko kidea eta  
euskaltzain urgazlea. Diploma eta iku-  
rra Jagon Sailburuak emango dizkio.

**6.6) Martzel Etchehandy.** Eihera-  
larren (Nafarroa Beherea) jaioa. Teolo-  
gian eta Biblia Zientzian lizentziatua.



Belokeko  
a b a d i a -  
ren liburuzaina da. Baionako Lau-  
buru elkartean 30 urte inguru  
eman ditu hilarriak bilatzen, sail-  
katzen eta arakatzen. Elizen Arte-  
ko Bibliaren itzultzailea da. Eus-  
kaltzain urgazlea. Buruordeak  
e m a t e a  
z e g o e n  
aurreiku-  
sita, baina  
gaur etor-



tzerik izan ez duenez, Euskaltzainbu-  
ruak emango dizkio diploma eta ikurra.


**6.7) Ana Maria Etxaide.** Donos-  
tian jaioa. Hizkuntzalaritza Orokorraren  
katedraduna. Nafarroako Unibertsita-  
tean irakasle izan zen erretiroa hartu  
arte, eta gaur egun katedratiko emerit-  
tua da. Euskaltzaindian Euskal Dialek-  
tologiari buruzko hainbat jardunaldiren



antolatzaile izan da. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitas-morako Nafarroako 10 herritan inkestak egin zituen. Euskaltzain urgazlea ere bada. Diploma eta ikurra Diruzainak eman-go dizkio.

**6.8) Jose Angel Irigarai.**

Iruñean jaioa. 60ko hamarkadaren erdi aldera, *Ez Dok Amairu* taldearen hasierako partaide izan zen. Sorkuntzari dagokionez, literatura da bere eremu nagusia. Berau ere euskaltzain urgazlea dugu. Diploma eta ikurra Iker Sailburuak emango dizkio.



7) Gaur hona etortzerik izan ez duten ohorezko euskaltzainei ere diploma helaraziko zaie, hau da, **Joshua Fishman**, **Joxemari Iriondo** eta **Xabier Lete** jaunei.



Diplomak eta dominak jaso ondoren, bertaratutako ohorezko kide berri bakoitzaren hitzak entzuteko aukera paregabea izan genuen. Oso atseginak izan ziren eskaini zizkiguten jarduntxoak. Benetan hunkigarria gertatu zen ekitaldia.



Ondoren Euskaltzain buru dugun Andres Urrutia mintzatu zen, bertaratutako guztiei eskerrak emanez, izendatuei euskaren alde egindako lana eskertuz, eta, era berean, Euskaltzaindiaren babes eta lankidetzaren osoa eskainiz.

Horren ostean, etorkizunerako adierazpide izan dadin Euskaltzain osoak eta Ohorezko Euskaltzainak elkarrekin baturik zirela hainbat argazki atera ziren. Azkenean, bertaratutako ohorezko euskaltzainen aparteko argazkia ere egin zen.

Eta, nola ez, ondoren, guztien adiskidetasunezko bazkaria.

*Patxi Uribarren Leturiaga*

Kronika labur honi amaiera emateko, bere bizitzako lanik oparoena aldizkari honetan egin izan duen Luis Baraizarra Txertudi karmeldarrak bertan irakurritako txosten laburra ere bildu nahi izan dut, zuek guztiok atsegin handiz irakurriko duzuelakoan.

### **Santi onaindiaren profezia**

Atseginez irakurri nuen Euskaltzaindiaren *Plazaberi* aldizkarian Jabier Kaltzakortak *Antonio Zabalaren omenetan eta obo-retan* izeneko idazlanean dioena:

*Auspoa hasi berri hartan, 1961. urte ingurutsuan, baserri-tar batek hitz mingarri batzuk esan omen zizkion Antonio Zabalari. Gutxi gorabehera honelaxe esan zion: "Auspoako lehen alea erosi dudanean txakurkume baten jabe ere egin naiz, eta izena ere Auspoa jarri diot. Txakurtxoa erosi eta egun gutxira hil zait ordea, eta zure liburu horiek ere ez dute aurrera segituko".*



Eta gogoeta eginez, hau dio Jabier Kalzakortak: *Gaur eguneko distantzian esan dezakegu baserritar bark pentsamendu magikoa zeukala eta kolkoan gorde beharrean braustakoan bota zuela barruan gorde beharrekoa. Baina, zorionez, ez zuen asmatu [...].*

Hori irakurtzean, A. Santi Onaindiarekin niri neuri gertatutakoa etorri zitzaidan gogora. Honela agertzen dut *Nire Sasoiko Markina-Xemein* liburuan:

*Larrean ia bertakotuta edo ekanduta nengoan, baina hangoa aldi baterako izango zalakoa neukan. Hori zan asmoa Begoñatik beste komentuetara hustu ginduezanean... Hiru bat hilabete nerotiazan han eta egun baten Gasteiztik Probintzialak eginiko eskutitza jaso neban. Markina-Xemeingo komentura bidaltzen ninduala ziraustan.*

*Aurrez buruan sartuta neukan, Zornotzako Larrea bera edo Markina-Xemein izan eitekeala niretzako modukoa. Beraz, ez ninduan harritu Probintzialaren erabagiak. Ondo hartu neban. Alboan bazan erabagi ba okertzat jo ebanik: Santi Onaindiak bere ondoan nahi ninduan. Euskal letretan bidelagun izango nintxakolako ametsak zerabiltzan... Bazkal ostean polito asaskatu zan. Ametsa zapuztu izanak eraginiko sumendi-zulotik bota zituan abokada batzuk, profezia antzera: Markinan ez haz ezer izango; han hegoak mozturiko txoria izango haz. Sermolariak, idazleak, olerkariak... hemen egiten dituk, Larrean!*

*Berbak ez dakit honeek ziran, baina ideia behintzat zebatz-mebatz bauxe zan. Nik profezia antzera esaniko bareek ezeztatu nahi nituan. Senak emon eustan, Markina-Xemeinen neure lekua aurkitu eta aurrera egingo nebala...*

Eta bai! Aurrera egin dugu, Euskaltzaindiaren izendapen honek erakusten duenez. 70eko hamarkadan hasita batez ere, apurka-apurka geure euskal baratzea landuz joan gara. Euskal hiztegietan, itzulpenetan, bertsolaritzan, irakaskuntzan, *Karmel* aldizkariko idazlanetan... ahalegindu gara. Dena dela, Antonio Zabalaren jazorikoa baserritarrarekin eta nire jazorikoa Santi Onaindiarekin bata bestearen ondoan ezartzeak, ez du esan nahi guk geure burua haren parean ezartzen dugunik, ezta hurrik eman ere. Gure jarduera euskal arloan harenaren aldean oso apala da. Auzolanean jardun dugu gehienetan. Aurrera egin ahala, gidari onak eta bidelagun finak aurkitu ditugu. Horiek guztiak gogoan ditudala, eskerrik asko Euskaltzaindiari eta hemen zareten guztioi!

*Luis Baraiazarra Txertudi*